

### III. eranskina

576 ereduaren "4 Autolikidazioa" apartatuko (4) laukian zergari ez lotzeko, salbuesteko edo oinarria murrizteko arrazoiari dagokionez onartzen diren gakoak, eta, hala badagokio, aurkeztu beharreko dokumentazioa:

GAKOA	ARRAZOIA	DOKUMENTAZIOA
<b>ZERGARI LOTU GABEA</b>		
NR1	<p>Indar armatuek, Estatuko, autonomia erkidegoetako eta toki korporazioetako segurtasun indarrek eta kidegoek, bai eta aduanako zainzaileek ere, defentsa, zaintza eta segurtasun eginkizunetan erabiltzeko ibilgailuak.</p> <p>Uztailaren 26ko 4/2023 FDAren 65.1 a) 9. artikulua</p>	<p>Ibilgailua defentsa, zaintza edo segurtasun eginkizunetarako baino ez dela erabiliko justifikatzen duen adierazpena.</p>
NR2	<p>Anbulantziak eta, dauzkaten ezaugarriengatik, autobide eta errepideetan zaintza eta sorospen lanetarako bakarrik erabil daitezkeen ibilgailuak.</p> <p>Uztailaren 26ko 4/2023 FDAren 65.1 a) 10. artikulua</p>	<p>Ibilgailua autobideetan eta errepideetan zaintza eta sorospen lanak egiteko ez beste ezertarako ez dela erabiliko justifikatzen duen adierazpena.</p>
UNI	<p>Ikerketa, irakaskuntza edo ikasketa jardueren esparruan unibertsitateen izenean matrikulatutako garraiobideak.</p> <p>Martxoaren 22ko 2/2023 LOren 58.5 artikulua.</p>	<p>Garraiobidea zer motatako ikerketa, irakaskuntza edo ikasketa jarduerari atxikita dagoen edo atxikiko zaion deskribatzen duen dokumentua.</p> <p>Garraiobidea erabil dezakeen edozein pertsonak ikerketa, irakaskuntza edo ikasketa helburuetarako ez beste batzuetarako erabiltzeak, salbuespenaren baldintzak ez betetzeagatik, zerga erantzukizuna ekar lezakeela ezagutzen eta onartzen dela dioen dokumentua.</p>
N1	<p>Kontseiluaren 1970eko otsailaren 6ko 70/156/EEE Zuzentarauak, ibilgailu motordunen eta horien atoiaren homologazioari buruz estatu kideek dituzten legeriak hurbiltzeari buruzkoak, 2007ko ekainaren 30ean indarrean duen eranskinaren testuko N2 eta N3 kategorietan jasotako ibilgailuak, zergari ez lotzeko beste kasu batzuetan sartuta ez daudenean.</p>	

GAKOA	ARRAZOIA	DOKUMENTAZIOA
	<p>Gainera, nahitaezkoa da horiek etxebizitza gisa erabiltzeko ez egokitzea.</p> <p>Uztailaren 26ko 4/2023 FDAREN 65.1 a) 1.a artikulua</p>	
N2	<p>Kontseiluaren 1970eko otsailaren 6ko 70/156/EEE Zuzentarauak, ibilgailu motordunen eta haien atoiaren homologazioari buruz estatu kideek dituzten legeriak hurbiltzekoak, II. eranskinaren M2 edo M3 kategorietan jasotzen dituen ibilgailuak, eta tranbiak.</p> <p>Uztailaren 26ko 4/2023 FDAREN 65.1 a) 2.a artikulua</p>	
N3B	<p>Objektiboki aintzat hartuta, industrian, merkataritzan, nekazaritzan, medikuntzan edo zientzian bakarrik aplikatzekoak diren ibilgailuak, betiere haien serieko modelook edo banaka hartutako ibilgailuak behar bezala homologatu baditu Zerga Administrazioak. Ondorio horietarako, ulertuko da ibilgailuak aplikazio horietarako bakarrik bideratuta daudela horietan baldintza hauek betetzen direnean: bakar-bakarrik bi eserleku izatea (gidariarena eta laguntzailearena), ez izatea ez eserleku gehigarriak ez eserlekuak ainguratzeko euskarririk, zamarako espazioan alboetako leihorik ez egotea eta espazio horrek barruko bolumenaren 100eko 50 baino gehiago hartzea.</p> <p>Uztailaren 26ko 4/2023 FDAREN 65.1 a) 3.a artikulua</p>	
N44	<p>Bi edo hiru gurpileko ziklomotorrak.</p> <p>Uztailaren 26ko 4/2023 FDAREN 65.1 a) 4.a artikulua</p>	
N15	<p>Kuadriziklo arinak.</p> <p>Uztailaren 26ko 4/2023 FDAREN 65.1 a) 4.a artikulua</p>	
N43	<p>Motozikletak eta kuadrizikloak ez diren hiru gurpileko ibilgailuak, bi kasuetan zilindrada ez bada 250 zentrimetro kubikotik gorakoa, barne errekuntzako motorren kasuan, edo gehieneko potentzia garbia 16 kW-tik gorakoa ez denean, gainerako motorretan.</p>	

GAKOA	ARRAZOIA	DOKUMENTAZIOA
	Uztailaren 26ko 4/2023 FDaren 65.1 a) 5.a artikulua	
N5	Mugikortasuna mugatua duten pertsonentzako ibilgailuak.  Uztailaren 26ko 4/2023 FDaren 65.1 a) 6.a artikulua	Desgaitasunaren edo balioezintasunaren frogagiria, Foru Aldundiko organo eskudunak, autonomia erkidegoetakoak, Gizarte Zerbitzuetako Institutu Nazionalak edo kudeaketa entitate eskudunek emana.
N6	Ibilgailu bereziak, betiere 70.1 artikuluko 4. epigrafean definitzen diren "quad" motako ibilgailuak ez badira.  Uztailaren 26ko 4/2023 FDaren 65.1 a) 7.a artikulua	
N7	Kontseiluaren 1970eko otsailaren 6ko 70/156/EEE Zuzentarauak, ibilgailu motordunen eta horien atoiari homologazioari buruz estatu kideek dituzten legeriak hurbiltzeari buruzkoak, 2007ko ekainaren 30ean indarrean duen eranskinaren testuko N1 kategorian jasotako ibilgailuak, zergari ez lotzeko beste kasu batzuetan sartuta ez daudenean. Gainera nahitaezkoa da horiek jarduera ekonomiko bati atxikita egotea modu esanguratsuan eta etxebizitza gisa erabiltzeko ez egokitzea.  Uztailaren 26ko 4/2023 FDaren 65.1 a) 1.a artikulua  Ibilgailu misto moldagarriak, karrozeriaren sabaiaaren parte estrukturaletik lurreraino duten altuera osoa 1.800 milimetrotik gorakoa denean, betiere lur orotako ibilgailuak ez badira, jarduera ekonomiko bati modu esanguratsuan atxikita badaude eta etxebizitza gisa erabiltzeko egokitzen ez badira.  Uztailaren 26ko 4/2023 FDaren 65.1 a) 8.a artikulua	
N8	Aisiarako edo ur kiroletarako ontzi eta itsasontzi berriak zein erabiliak, zortzi metrotik gorako luzerarik ez dutenean.  Uztailaren 26ko 4/2023 FDaren 65.1 b) artikulua	

GAKOA	ARRAZOIA	DOKUMENTAZIOA
N9	<p>Beren ezaugarri teknikoengatik, nekazaritza edo basogintzako lanetarako edo gaixoak eta zaurituak garraiatzeko bakarrik erabili daitezkeen aireontziak.</p> <p>Uztailaren 26ko 4/2023 FDaren 65.1 c) 1.a artikulua</p>	<p>Aire Segurtasuneko Estatu Agentziaren ziurtagiria, aireontzia zertarako erabiliko den adierazi behar duena.</p>
N10	<p>Abiazio Zibileko Zuzendaritza Nagusiak emandako ziurtagiriaren arabera, aireratzeko unean gehenez 1.550 kilogramo pisatzen duten aireontziak.</p> <p>Uztailaren 26ko 4/2023 FDaren 65.1 c) 2.a artikulua</p>	<p>Aire Segurtasuneko Estatu Agentziaren ziurtagiria, aireratzean gehieneko pisua zein den adierazi behar duena.</p>
N12	<p>Zergaren aplikazio lurraldean berriro sartzea lurralde horretatik kanpora behin betiko bidali den garraiobide bat, baldin eta uztailaren 26ko 4/2023 FDaren 65.3 art.ko azken paragrafoan aipatzen de lehen matrikulazioa ez bada.</p>	
ETC	<p>Zerga Kanarietan sortuta daukan garraiobidea, zerga egitatea gertatu eta hurrengo urtearen ondoren sartu dena behin betiko Gipuzkoako Lurralde Historikoan. Gako hau zerga egitatea gertatu ondorengo urtearen barruan sartutako garraiobideari ere dagokio, baldin eta zerga Kanarietan ordainarazi bada aplikatutako zerga tasa garraiobidea Gipuzkoako Lurralde Historikoan sartzeko unean bertan indarrean zegoena baino txikiagoa izan gabe.</p> <p>Uztailaren 26ko 4/2023 FDaren 70.5 artikulua</p>	<p>Ibilgailuaren zirkulazio baimena.</p> <p>Inportazioko ADBa</p> <p>Zenbait garraiobideren gaineko zerga berezia, Kanarietan aurkeztua.</p>
<b>SALBUETSIA</b>		
ER1	<p>Indarrean dagoen legeriaren arabera taxi, autotaxi edo autoturismoak diren ibilgailu automobilak.</p> <p>Uztailaren 26ko 4/2023 FDaren 66.1 a) artikulua</p>	<p>Autotaxi edo autoturismoaren udal lizentzia (A edo B gako).</p>
ER2	<p>Kontraprestazio bidez gidariak trebatzeko ez beste ezertarako erabiltzen diren ibilgailu automobilak.</p> <p>Uztailaren 26ko 4/2023 FDaren 66.1 b) artikulua</p>	

GAKOA	ARRAZOIA	DOKUMENTAZIOA
ER3	<p>Alokairurako ez beste ezertarako erabiltzen diren ibilgailu automobilak (zergaren foru dekretu arauemaileak alokairu jardueraren ezari buruz ezartzen dituen mugekin).</p> <p>Uztailaren 26ko 4/2023 FDAren 66.1 c) artikulua</p>	
ER4	<p>Desgaitasuna duten pertsonen izenean beraiek bakarrik erabiltzeko matrikulatutako ibilgailu automobilak (betiere zergaren foru dekretu arauemailean ezarritako baldintzak betetzen badira).</p> <p>Uztailaren 26ko 4/2023 FDAren 66.1 d) artikulua</p>	<p>Desgaitasunaren edo balioezintasunaren frogagiria, Foru Aldundiko organo eskudunak, autonomia erkidegoetakoak, Gizarte Zerbitzuetako Institutu Nazionalak edo kudeaketa entitate eskudunek emana.</p>
ER5	<p>Aisiarako eta ur kiroletarako urontzi eta itsasontziak, alokatzeko ez beste ezertarako erabiltzen direnean (zergaren foru dekretu arauemaileak alokairu jardueraren ezari buruz ezartzen dituen mugekin).</p> <p>Uztailaren 26ko 4/2023 FDAren 66.1 g) artikulua</p> <p>Aisiarako eta ur kiroletarako urontzi eta itsasontziak, titulartasuna Merkataritzako Nabigazioaren Zuzendaritza Nagusiak ofizialki aitortutako kirol eskola nautikoei badagokie eta ontziak nola gobernatu irakasteko ez beste ezertarako erabiltzen badira.</p> <p>Uztailaren 26ko 4/2023 FDAren 66.1 h) artikulua</p>	<p>Merkataritzako Nabigazioaren Zuzendaritza Nagusiaren ziurtagiria, eskola itsasontziak nola gobernatu irakasteko erabiltzen dela justifikatu behar duena.</p>
ER6	<p>Abiazio Zibileko Zuzendaritza Orokorrek ofizialki aitortutako eskolen titulartasuneko aireontziak, pilotuen irakaskuntza eta prestakuntza aeronautikorako edo horien birziklatze profesionalerako ez beste ezertarako erabiltzen direnean.</p> <p>Uztailaren 26ko 4/2023 FDAren 66.1 k) artikulua</p>	<p>Aire Segurtasuneko Estatu Agentziaren ziurtagiria, eskolaren jarduera pilotuen heziketa eta prestakuntza aeronautikoa dela justifikatu behar duena.</p>
ER7	<p>Aire nabigazioko enpresei ez beste inori alokairuan emateko matrikulatutako aireontziak (zergaren foru dekretu arauemailean ezarritako mugekin).</p>	<p>Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren alta aitortpena edo ordaindutako azken ordainagiria, hala entitate lagatzailearena nola aire nabigazioko enpresarena.</p>

GAKOA	ARRAZOIA	DOKUMENTAZIOA
	Uztailaren 26ko 4/2023 FDAren 66.1 m) artikulua	
EC1	<p>Espanian matrikulatuta ez dauden alokairuko ibilgailuetarako salbuespena, Espainian zirkulatzen dutenean edo bertan erabiltzen direnean.</p> <p>Uztailaren 26ko 4/2023 FDAren 66.1 ñ) artikulua</p>	Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren alta aitortpena edo azken ordainagiria.
EC2	<p>Espanian matrikulatuta ez dauden itsasontzietarako salbuespena, alokairu jardueretarako ez beste ezertarako erabiltzen direnean.</p> <p>Uztailaren 26ko 4/2023 FDAren 66.1 ñ) artikulua</p>	Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren alta aitortpena edo azken ordainagiria.
EC3	<p>Espanian matrikulatuta ez dauden aireontzietarako salbuespena, Espainiako lurraldean Zerga Administrazioak aurrez aitortu behar dituen salbuespenak aplikatuta erabiltzen direnean.</p> <p>Uztailaren 26ko 4/2023 FDAren 66.1 ñ) artikulua</p>	Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren alta aitortpena edo azken ordainagiria.
EC4	<p>Espanian matrikulatuta ez dauden beste garraiobide batzuetarako salbuespena, Espainiako lurraldean zirkulatu edo erabiltzeagatik beste salbuespen edo ez-zergapetze kasu batzuk aplikagarri zaizkienean (eskatuta).</p> <p>Uztailaren 26ko 4/2023 FDAren 66.1 ñ) artikulua</p>	Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren alta aitortpena edo azken ordainagiria, edo salbuespena justifikatzen duen dokumentazioa.
ET1	<p>Duten konfigurazioagatik, arraun edo pala bidez soilik mugiaraz daitezkeen urontziak, bai eta kategoria olinpikoko belaontziak ere.</p> <p>Uztailaren 26ko 4/2023 FDAren 66.1 i) artikulua</p>	
ET2	<p>Estatuak, autonomia erkidegoek, lurralde historikoetako erakunde publikoek, toki korporazioek edo enpresa nahiz organismo publikoek matrikulatutako aireontziak.</p> <p>Uztailaren 26ko 4/2023 FDAren 66.1 j) artikulua</p>	Aire Segurtasuneko Estatu Agentziaren ziurtagiria.

GAKOA	ARRAZOIA	DOKUMENTAZIOA
ET3	<p>Aire nabigazioko enpresen titulartasuneko aireontziak, betiere haien erabilera ezin bada aisiako abiazio pribatutzat hartu.</p> <p>Uztailaren 26ko 4/2023 FDaren 66.1 l) artikulua</p>	<p>Aire Segurtasuneko Estatu Agentziaren ziurtagiria.</p>
ET4	<p>Matrikula diplomatikoaren araubidea aplikatuta matrikulazio berezia duten ibilgailuak, erregelamenduz ezarritako muga eta baldintzekin.</p> <p>Uztailaren 26ko 4/2023 FDaren 66.1 e) artikulua</p>	<p>Jatorriaren ziurtagiria, Kanpo Arazoetako eta Lankidetzako Ministerioak emana.</p>
ER8	<p>Titularraren ohiko bizilekua atzerritik Gipuzkoako Lurralde Historikora aldatzeagatik matrikulatzen edo erabiltzen diren garraiobideak.</p> <p>Uztailaren 26ko 4/2023 FDaren 66.1 n) artikulua</p>	<p>Espainiako lurraldetik kanpo gutxienez hamabi hilabetez jarraian bizi izanaren ziurtagiria, kontsuletzeko agintaritza eskudunak emana.</p>
<b>ZERGA OINARRIAREN MURRIZTAPENA</b>		
P8	<p>Bost eta bederatzi plaza bitarteko edukiera homologatua duten ibilgailu automobilak, gidariarena barne, familia ugariak ez bestek erabiltzekoak.</p> <p>Uztailaren 26ko 4/2023 FDaren 66.4 artikulua</p>	<p>Familia ugariaren titulua edo familia ugaria izateari buruzko frogagiria, erakunde eskudunak emana.</p>
P9	<p>Tributuaren zerga oinarria, foru dekretu arauemailearen 69. artikuluan aurreikusitakoaren arabera kalkulatu, 100eko 30 murriztuko da ibilgailu hauek direnean:</p> <p>a) Abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Ibilgailuen Erregelamendu Orokorren II. eranskinean (2007ko ekainaren 30ean indarrean zegoen testua aintzat hartuta) "autokarabana" gisa definitutako ibilgailuak.</p> <p>b) Etxebizitza gisa erabiltzeko egokitutako ibilgailuak, foru dekretu arauemailearen 65. artikuluko 1.a) apartatuko 1. zenbakiaren azken paragrafoan eta apartatu horretako 8. zenbakiaren azken paragrafoan aipatuak.</p> <p>Uztailaren 26ko 4/2023 FDaren 66.5 artikulua</p>	

GAKOA	ARRAZOIA	DOKUMENTAZIOA
P10	<p>Bost eta bederatzi plaza bitarteko edukiera homologatua duten ibilgailu automobilak, gidariarena barne, familia ugariak ez bestek erabiltzekoak, etxebizitza ibilgailuak ere direnean.</p> <p>Uztailaren 26ko 4/2023 FDaren 66.4 eta 66.5 artikulak</p>	<p>Familia ugariaren titulua edo familia ugaria izateari buruzko frogagiria, erakunde eskudunak emana.</p>